JARDUEREN MEMORIA 21-22

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN

Aldeko Mundu-kanpainia

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN

Aldeko Mundu-kanpainia

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

01 Sarrera 4

02 Webinarra irakasleekin 7

03 Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea, Euskadin 9

3.1 Bizkaia
3.2 Gipuzkoa
3.3 Araba

04 Euskal Herriko Unibertsitateko jardunaldiak 17

05 Prestakuntzak Afrikan 20

5.1 Burkina Faso
3.2 Benin
3.3 Senegal

06 Egin bat Euskadiko HAMK sarearekin! 26

07 Esker ona 27

01 SARRERA

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina (HAMK) 2000. urtean jaio zen nazioartean, eta helburu hauek ditu: batetik, herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea, denontzako hezkuntzaren aldeko bozeramaile eta ekintzaile izan daitezen; eta, bestetik, ordezkari politikoei euren konpromisoak betearaztea hezkuntzarako eskubideari dagokionez, beti ere harreman zuzenean Nazioen Batuen 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako 4. helburuarekin eta (H)ABIAN euskal planarekin.

2001. urtetik hona, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak mundu osoan ospatu du Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea (HAMA). Apirilean ospatu ohi da, aurten apirilaren 25etik 30era. Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko lan egiten dugun 124 herrialde baino gehiago mobilizatu ginen, eta hezkuntza-komunitateari, komunikabideei, gizarte osoari eta, batik bat, ordezkari politikoei ohartarazi genien beharrezkoa dela gauzatzea munduko biztanle guztientzako kalitatezko hezkuntza baterako eskubidea.

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren bidez azpimarratu nahi dugu ikasleak –oro har, haurrak eta gazteak– gai direla euren gizartea hobetzeko, gogoeta, mobilizazio eta aktibismoaren bidez.

2021/2022ko ekitaldi honetan, ezagutzera eman nahi izan ditugu Euskadin eta Afrikan –hain zuzen ere, Beninen, Burkina Fason eta Senegalen– bultzatu ditugun ekintzak. Elkar aberastu dugu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzari esker.

Aurten kalera eraman dugu berriro kanpaina, Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea (HAMA) pandemiaren murrizketengatik ezin izan baikenuen jendartean ospatu aurreko urteetan. Ekitaldi honetan zehar, kalitatezko hezkuntza sustatzen jarraitu dugu, **#Altxa ahotsa irakasleen alde** leloarekin, ikasleen ahotsak, esperientziak eta eskaerak entzuten jarrai daitezen. **Irakasleen garrantzia** azpimarratu dugu, ezinbestekoak baitira inor atzean uzten ez duen kalitatezko hezkuntzan. Gainera, balioa eman behar zaio COVID-19an zehar egin duten lanari, ikasleak hezten jarraitzeko, erronka guztiei aurre eginez.

Denok dakigun moduan, COVID-19ak gogor astindu ditu milioika ikasleren hezkuntzarako eskubidea, irakasleak, ikastetxeak eta familiak. Pandemiak agerian jarri ditu hezkuntzan lehendik zeuden gabeziak, eta munduko biztanle guztientzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko ekintzen beharra. Bizi izan dugun krisiak denoi eragin digu, baina aurten irakasleengan jarri dugu arreta, pandemian zehar egokitzapenak egin behar izan baitituzte hezkuntzarako eskubidea ziurtatzeko, oztopo guztiak gaindituta.

Ekitaldi honen hasieran pandemiarengatik arazoak eduki arren, 2022ko HAMA kalera itzuli da, eta ikasleak eta irakasleak mobilizatzeko plataforma bat izan da berriro, mundu osorako kalitatezko hezkuntzaren alde.

Berriro mobilizatu gara!

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea osatzen dugu 9 erakunde hauek: Educo (koordinatzailea), Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu, Derandein Fundazioa, Egoaizia – Lankidetza eta Garapena, FISC – Lankidetza eta Garapena, Itaka Escolapios Fundazioa, InteRed Euskal Herria, Unesco Etxea eta Jóvenes y Desarrollo.

Lurraldeko taldea:

02 WEBINARRA IRAKASLEEKIN

02 WEBINARRA IRAKASLEEKIN

Topaketa honen helburu nagusia, lehendik ere, HAMKren parte diren irakasleekin konektatzea izan da –bai eta irakasle eta hezitzaile berriekin ere–, elkarrizketarako gune bat sortzeko eta unitate didaktiko berriak aurkezteko, horietan oinarritzen baita Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea (HAMA) prestatzeko gogoeta eta analisia. Martxoaren 16an hausnarketak eta iritziak trukatu ziren, bai eta iradokizunak ere, Kanpainak urtero egiten duen lana hobetzeko. Ekimen horien bidez, iritziak trukatzeko eta denok elkarri modu aktiboan entzuteko guneak bultzatu nahi izan ditugu, ezinbestekoa baita haurren, gazteen eta irakasleen parte-hartzea sustatzea.

Saioaren hasieran Euskadiko HAMK taldea aurkeztu zen, bai eta Kanpainaren helburuak ere HAMKrekin lehen harremana zuten partaideentzat, eta unitate didaktiko berriak. Jarraian, materialetako jarduerak azaldu ziren, bai eta 2022ko Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Asterako lehen urratsak ere.

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainako lurralde-taldeak bihotzez ematen dizkie eskerrak partaide guztiei, euren presentziagatik nahiz ekarpen emankor eta aberatsengatik.



03 HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKO EKINTZA ASTEA - HAMA

03 HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKO EKINTZA ASTEA - HAMA

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astean zehar, hezkuntzarako eskubidea bermatzearren lan egiten dugun 124 herrialde baino gehiago mobilizatzen gara, eta hezkuntza-komunitateari, komunikabideei, oro har gizarteari eta, bereziki, ordezkari politikoei ohartarazten diegu beharrezkoa dela gauzatzea munduko biztanle guztientzako kalitatezko hezkuntza baterako eskubidea, Agenda 2030eko 4. GJHaren baitan: hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea. Aurten, "Altxa ahotsa irakasleen alde" izan da leloa. #HAMA2022 delakoak irakasleen ezinbesteko lana jorratu du; izan ere, hezkuntza-sistemaren giltzarrietako bat da. Nahitaezkoa da ahaleginak elkartzea hezkuntza babesteko; irakasleek erdigune izan behar dute, ikas-prozesuaren bizkarrezurra direlako.

Ikasturte honetan unitate didaktikoak sortu dira adin-talde guztientzat, eta jarduerak euskaraz eta gaztelaniaz egin dira. Era berean, Bizkaian kale-mobilizazio bat egitea proposatu zen 2022ko HAMAren barruan, bai eta "HAMA materialen paketeak" prestatzea ere. Hiru lurraldeetako ikastetxetara bidali genituen, HAMAko mobilizazio-ekintzak euren ikasgela eta patioetan egin zitzaten. Irakasleek ikasleekin batera sortutako mobilizazio-proposamen ugari egon dira! Gozamena izan da! Bejondeizuela!

Horretaz gainera, 2022ko HAMA Bilboko kaleetara itzuli zen, COVID-19ak eragindako bi urteko etenaldiaren ondoren, eta horrek bistaratu egin ditu HAMK, HAMA eta ikasleen ahotsak.

Sentsibilizatzea da unitate didaktikoen nahiz mobilizazio-ekintzen helburua, eta hezkuntza-komunitatearen kontzientzia kritikoa piztea, hezkuntzarako eskubidea berma dadin eta finantzaketa egokia eduki dezan. Eta, aurten, irakasleei balioa ematean, haien alde altxatu dugu ahotsa!

Hemen dituzue unitate didaktikoen estekak:

Haur Hezkuntza | Lehen Hezkuntzako 1. zikloa | Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

Lehen Hezkuntzako 3. zikloa | Bigarren Hezkuntza eta Helduen Hezkuntza

HAMA Bizkaian!

Aurten, Bizkaiko HAMAren ekintzak bi eratakoak izan dira. 2022ko HAMAren ekitaldi nagusia **Bilboko Indautxu plazan** izan zen, apirilaren 28an: HAMA kalera itzuli zen! Ekitaldi horretan 6 ikastetxe mobilizatu ziren: Artxandape, Gaztelueta, El Carmen, Ikasbide, Bilboko Eskolapioak eta Sagrado Corazón ikastetxeetako 180 haur baino gehiagok ahotsa altxatu zuten irakasleen alde. Horrela azpimarratu zuten irakasleak hezkuntzan duen garrantzia, eta batzuetan gainditu behar dituen zailtasunak, pandemiarekin ikusi dugun moduan. Gipuzkoako Aldundiko eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako ordezkariak izan ziren bertan, eta arretaz entzun zituzten ikasleek hezkuntza hobetzeko egindako eskaerak.

Ekitaldian zehar, hainbat ekintza egin ziren, eta haurrek eta nerabeek, ondo pasatzeaz gain, komunikabideen eta oinezkoen arreta erakarri zuten. Kartoizko mikrofonoak egin, euren ideiak eta gogoetak mapamundi erraldoi batean adierazi, eta manifestu bat irakurri zuten, euren eskaerak agintariei helarazteko.

Ekitaldia amaitzeko, ikastetxe guztien arteko koreografia bat egin zen.

Horretaz gainera, HAMAn zehar, Bizkaiko hainbat ikastetxek mobilizazio-ekintzak egin zituzten euren ikasgela eta patioetan. Era horretan, Indautxuko ekitaldira joaterik izan ez zuten ikastetxeek ere bat egin zuten mobilizazioekin!



Santurtziko **San José de Calasanz**, ikastetxean, Marketin Graduko ikasleek zentroan bertan landu zituzten unitate didaktikoak, denontzako kalitatezko hezkuntzaren garrantzian sakontzeko eta, aurtengo leloari jarraituz, irakasleek hezkuntzan duten papera azpimarratzeko. Materialak landu ondoren, ikasleek, zenbait irakaslerekin batera, Lipdub dibertigarri bat egin zuten, bai eta elkarrizketak ere ikastetxeko hainbat irakasleri, pandemian zehar irakasle-lanetan izan dituzten esperientziak ezagutarazteko. Horrela jakinarazi dituzte irakasleek bizi izandako zailtasunak eta pasadizoak, modu

atsegin eta pedagogikoan.

Bilboko **Sagrado Corazón** ikastetxeak Lehen Hezkuntzako 5. mailako gela batekin hartu zuen parte. Hezkuntzaren eta irakasle-lanaren garrantziaz hausnartu ondoren, ikasleek podcast zoragarri bat egin zuten, irakasleek hezkuntzan duten balioari buruzkoa. Era horretan, elkarrizketa interesgarri bat egon zen ikasleen eta irakasleen artean; horrela nabarmendu zen irakasleek hezkuntzan eta ikasleen bizitzan duten garrantzia.

Bilboko **Aldamiz** Hezkuntza Bereziko Ikastetxean, lehen eta bigarren hezkuntzako 25 ikaslek bat egin zuten hausnarketa eta mobilizazio-jarduerekin, irakasleen zereginari balioa emateko, eta, horretarako, elkarlanean egin zituzten horrelako kartel, material eta mezu harroputzak elkarlanean prestatu zituzten kartelak, materialak eta mezuak partekatzen dizkizuegu:

Bilboko **Eskolapioetan**, DBH 1eko ikasleek mobilizazio-ekintzak egin zituzten ikastetxean, eta, material

didaktikoetan proposatutako jarduerei esker, irakasleek hezkuntzan duten garrantziaz hausnartu zuten; horrela, irakasleen aldeko ahotsa altxatu zuten, mobilizazioekin bat eginez!

HAMA Araban!

Gasteizko **Egibide** ikastetxean, ikasleek eta irakasleek mobilizazio-ekintza bat egin zuten, apirilaren 26an. DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 475 ikaslek hartu zuten parte

Egun horretan elkartu, eta ahotsa altxatu zuten irakasleen alde. Hezkuntza-etapa guztietako ikasgeletan –DBH, Batxilergoa eta LH–, ikasleek ozen irakurri zuten kanpainaren manifestua, jolas-ordua baino 15 minutu lehenago. Jarraian, jolas-orduaren hasieran, ikasgela bakoitzeko ordezkari bana mediatekara jaitsi, eta mapamundian ipini zituen hezkuntza-komunitateko mezuak, apirileko lehenbiziko hamabostaldian landuak.

San Prudencio ikastetxean, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek podcast bat egin zuten, irakasleei elkarrizketak eginez. Bertan galdetu zieten zergatik egin ziren irakasle, euren ustez zer ezaugarri eduki behar dituen irakasle batek, eta zer diferentzia ikusten dituzten iparralde eta hegoalde globaleko irakasleen errealitatean. Ikus-entzunezko horren bidez, ikasleek protagonista egin dituzte irakasleak, ahotsa eman diete euren esperientziei eta kezkei, eta entzunak izateko aukera eman diete!

HAMA Gipuzkoan!

Aldatze ikastetxean Haur Hezkuntzatik Batxilergora arteko 11 ikasgela aritu ziren, guztira 402 ikasle. Horma-irudi bat sortu, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek elkarrekin margotu, eta ikasgela bateko argazkiak txertatu zituzten, irakasleen garrantzia nabarmentzeko. DBHn eta Batxilergoan, ikasgela bakoitzak irakaslearen silueta zati bat egin, atal bakoitza beste ikasgeletako atalekin batu, eta horma-irudi bat sortu zuten lankidetzan.

Aurten, **Eibarko Liburutegia** berriro bildu da apirilaren azken asteko mobilizazioetara. Liburutegira doazenen eskura jarri dituzte unitate didaktikoak, eta irakasleak eta hezkuntza aipatzen dituzten liburu- eta film-zerrenda. Hezkuntza sustatzeko modu bikainak daude, kasu honetan irakaslearen lanari balioa emanez!



04 EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO JARDUNALDIAK

04 EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO JARDUNALDIAK

2021/2022ko ikasturte honetan, gogoetarako eta debaterako guneak bultzatu ditugu Euskal Herriko Unibertsitatean, ikasleek gure lurraldea eraldatzeko proposamenak egin ditzaten. Irakasleekin batera, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako Hezkuntza Fakultateetako ikasleen topaketak antolatu dira, euskal hezkuntzaren maila bakoitza emantzipatzailea den aztertzeko, proposamenak eta gomendioak sortzeko, eta arreta non jarri behar dugun jakiteko, hezkuntzaren bidez ikasleak gehiago emantzipatu daitezen. Jardunaldi horiek martxoan eta apirilean egin ziren, eta **Gizarte Hezkuntza /Pedagogia, eta Haur Hezkuntza** graduetako 82 ikaslek hartu zuten parte.

Ikasleek tailerretan esan zutenez, oso garrantzitsua da hezkuntza emantzipatzailea izatea, hezkuntzak gaitu egiten baitu, lagungarria da garapen pertsonalerako, pentsamendu kritikorako eta parte hartzeko; dena dela, ikasleei ez zaie iruditzen jasotako hezkuntzak emantzipazioa argi bultzatzen duenik.



Iruditzen zaie egungo hezkuntza-ereduak ezagutzak errepikarazten dituela, ez duela kritikarik eta gogoetarik espero, ez dela moldatzen ikaslearen beharretara, eta ikaslea dela hezkuntza-sistemaren metodologietara moldatu behar duena.

Ikasleek diotenez, hezkuntza emozionalak gorakada bizi duen arren, bakarrik beheko hezkuntza-zikloetan hartzen da kontuan, eta desagertu egiten da, hezkuntza-etapetan gora joan ahala.

Ikasleek hobekuntza-proposamenak landu zituzten elkarrekin, gure hezkuntza emantzipatzaileagoa izan dadin. Horretarako, besteak beste proposatzen dute ikasleei gehiago entzutea, premia bakoitza aintzat hartzea, metodologiak parte-hartzaileagoak izatea, ikasle bakoitzaren gaitasunak indartzea eta ikasgelan sormena sustatzea.

Txosten honetan bildu dira gogoeta-prozesua, ikasleen erronkak eta ateratako ondorioak.

Ea interesgarria iruditzen zaizun!

05 PRESTAKUNTZAK AFRIKAN

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainako euskal taldeak 2018az geroztik indartzen eta bultzatzen ditu ekintza eraldatzaileak, HAMK-ko koalizioekin batera, Senegal, Burkina Faso eta Beninen, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesari esker.

2021/2022ko ekitaldian, lehendik hasitako elkarlanarekin jarraitu da, eta hezkuntzaren ahalmen emantzipatzailea azpimarratzen du.

Jarduera hauek egin dira 3 herrialdeetan.

Hezkuntza emantzipatzailea lortzeko, gizartea mobilizatzeko eta politikan eragiteko gaitasunak indartzea Burkina Fason.

Martxoaren 30etik apirilaren 1era, hiru eguneko tailer bat egin zen, Burkina Fason, gizartea mobilizatzeko eta politikan eragiteko gaitasunak indartuz, hezkuntza emantzipatzailea lortzeko kalitatezko hezkuntza baten alde. Topaketako partaide izan ziren Burkina Fasoko HAMK-ko koalizio nazionaleko erakundeak, Hezkuntza, Alfabetatzea eta Hizkuntza Nazionalak Sustatzeko Ministerioa, irakasle-sindikatuak, eta ikertzaile eta kazetariak.

Honako hauek izan ziren helburuak: batetik, parte-hartzaileak ohartaraztea hezkuntza emantzipatzailearen esanahiaz; bestetik, elkarrekin sortzea hezkuntzan ikuspegi emantzipatzailea txertatzeko gomendioak; eta, azkenik,

hezkuntza emantzipatzailea sustatzeko ekintza-plan bat asmatzea. Lehenbiziko saioan, hezkuntza-sistema burkinofasoarraren diagnostikoa aurkeztu zen, eta nabarmendu egin ziren bertako hezkuntza-sistema emantzipatzailea izateko zailtasunak.

Bigarren fasean, hezkuntza emantzipatzailearen arlo nagusiak berrikusi ziren; hala nola, autonomia eta pentsamendu kritikoa, herritarrak aldaketaren eragile izan daitezen.

Hezkuntza emantzipatzailea sustatzeko, ekintza-planak egin ziren lankidetzan; ondoren, azterketarako eta plangintzarako tresnak adostu ziren; bukatzeko, planak gauzatzeko gomendioak eman ziren. Osoko bilkuretan, koalizioko erakundeek hezkuntza emantzipatzailea sustatzeko konpromisoa hartu zuten.

Hezkuntza emantzipatzailearen alde trebatzeko eta tokian tokiko aktibismoa sustatzeko tailerra Beninen.

Apirilean, hezkuntza emantzipatzailearen alde trebatzeko eta gizartea eraldatzeko hiru eguneko tailerra egin zen, Beninen, eta 37 parte-hartzaile izan ziren bertan.

“Hezkuntza emantzipatzailearen definizioa eta erronkak Afrikan eta Beninen” izeneko dokumentua aurkeztu zen, hezkuntzak gizartean duen eragina erakusteko. Iritzi-trukearen ondorioek agerian jarri zuten hezkuntzak hazkunde ekonomikorako duen garrantzia, eta bertan identifikatu ziren baliabideak, esparrua, egoera eta helburua (pentsamendu kritikoa, ekintzailetza, lanaren balorazioa). Hezkuntza emantzipatzaileak aurreiritzietatik askatzeko bidea ematen du, geure kabuz pentsatzeko aukera, eta

aurrea hartzen laguntzen digu.

Hezkuntza Emantzipatzailearen 6 dimentsioak ere aztertu ziren, sistema hori eta egungo hezkuntza-sistema alderatuta.

Gomendioak jaso ziren arlo hauetan:

- gomendioak maila politikoan
- programak / edukiak
- antolakuntza / esparrua
- eragilea

Erakunde sozialak hezkuntza emantzipatzailearen alde trebatzeko tailerra Senegalen.

Apirilean ere bai, Dakarren, bi eguneko tailerra egin zen, helburu honekin: batetik, mobilizazio soziala lortzeko, erakunde sozialek duten gaitasuna indartzea; eta, bestetik, politikan eragitea, hezkuntza emantzipatzailearen alde modu eraginkorragoan trebatzeko.

Horren barnean daude, besteak beste:

- Argitzea zer diren hezkuntza emantzipatzailea, mobilizazio soziala eta eragin politikoa, estrategia eta tresna egokiak zehaztuz.

- Tresnak sortzea, bai eta mobilizazio sozialerako eta hezkuntza emantzipatzailerako estrategiak ere, 2022ko Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astera begira.

Jarduerak 30en bat parte-hartzaile izan zituen, eta horien artean zeuden Senegalgo HAMK-ko lurralde-ordezkaritzetako 14 koordinatzaileak, COSYDEPeko (Senegalgo HAMK) zuzendaritza-batzordeko kideak, sindikatuak, ikasleen gurasoak eta bestelako bazkideak.

Trebakuntza-saioari esker, hezkuntza emantzipatzailerako eskubideak babes sozial handia jaso zuen. HAMA 2022ren gertutasunagatik, testuingurua oso egokia zen eragiteko: munduko beste herrialde askotan bezala, Senegalgo hezkuntza-sistema kolokan jarri du osasun-krisiak, eta, gainera, sektorearen aurrekontua asko murriztu da osasun-gastuengatik eta osasun-krisiaren ondorioei aurre egin beharragatik.

06 EGIN BAT EUSKADIKO HAMK SAREAREKIN!

Euskadiko HAMK-k indartu egin nahi du ikastetxeekiko eta bestelako hezkuntza-erakundeekiko lotura, kalitatezko hezkuntza eraldatzailearen aldeko lan-sarea sendotzeko.

Bazatoz?

Hainbat ikastetxe eta erakunde atxiki dira, eta, zuri esker, sareak hazten jarraituko du!

Deskargatu hemen Euskadiko HAMKri atxikitzeko inprimakia, eta bidali hona: cme.euskadi@gmail.com

07 ESKER ONA

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren euskal taldeak eskerrak eman nahi dizkie ikastetxeetako, hezkuntza ez-formaleko eta unibertsitateko irakasle eta ikasleei, euren parte-hartzeagatik. Kanpainaren helburuak bistaratu dituzte, eta mobilizatzen eta arreta deitzen jarraitzen dugu denontzako kalitatezko hezkuntzaren alde. Eskerrik asko, hainbeste jarduera desberdin egin dituzuelako!

Datorren urtean ere elkar ikus dezagula!

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN

Aldeko Mundu-kanpainia

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO